



# kontsumoBIDE


KONTSUMOKO  
EUSKAL INSTITUTUA  
INSTITUTO VASCO  
DE CONSUMO

Eusko Jaurlaritzako Erakunde autonomiaduna  
Organismo Autónomo del Gobierno Vasco

PERTSONA  
HELBURU



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO



# 2013 memoria





**kontsumoBIDE**

KONTSUMOKO  
EUSKAL INSTITUTUA  
INSTITUTO VASCO  
DE CONSUMO

# Aurkibidea

## 1. Sarrera ..... 3

## 2. Informazioa ..... 5

### 2.1. Argitalpenak ..... 5

2.1.1. Liburuxkak ..... 6

2.1.2. Ikasmateriala ..... 8

2.1.3. Aldizkariak ..... 8

2.1.4. Azterlanak ..... 9

2.1.5. Kontsumobideren 2012ko memoria ..... 9

### 2.2. Sentsibilizazioa ..... 9

2.2.1. Kontsumoko Arbitraje Sistema  
hedatzeko kanpaina ..... 9

2.2.2. Kontsumobide hedatzeko  
kanpaina ..... 10

2.2.3. Kontsumobideren ogerpenak  
komunikabideetan ..... 10

### 2.3. www.kontsumobide.net ..... 11

## 3. Prestakuntza ..... 13

3.1. Kontsumorako prestakuntza  
Kontsumobideko zentroetan ..... 13

3.2. Kontsumorako prestakuntza  
ikastetxeetan ..... 14

3.3. Kontsumorako prestakuntza  
adinekoen zentroetan ..... 16

3.4. Ikastaroak eta jardunaldiak ..... 17

3.4.1. Profesionalentzako etengabeko  
prestakuntza ..... 17

3.4.2. EHUko Udako Ikastaroak ..... 17

## 4. Gatazkak konpontzea ..... 18

4.1. Kontsumoko kontsultak Euskadin ..... 18

4.2. Kontsumoko erreklamazioak  
Euskadin ..... 20

4.2.1. Kontsumobide ..... 23

4.2.2. Kontsumitzaileen  
Informaziorako Udal-Bulegoak  
(KIUB) ..... 27

4.2.3. Kontsumitzaileen  
elkartek ..... 29

4.3. Zehapen-espeditentek ..... 31

4.4. Kontsumoko Arbitrajea ..... 34

4.4.1. Enpresen atxikipena  
arbitrajeari ..... 34

4.4.2. Arbitraje-eskaerak ..... 38

## 5. Merkatuaren kontrola ..... 40

5.1. Ikuskatzeko eta kontrolatzeko  
kanpainak ..... 40

5.2. SOIVREekin koordinatutako  
ikuskapen-jarduerak ..... 41

5.3. Elikagaiak ez diren produktuen  
segurtasunaren kontrola ..... 41

5.4. Ikuskatze-jarduerak ..... 42

## 6. Beste erakunde eta agente batzuekin lankidetzan ..... 44

6.1. Babes ekonomikoa emateko programa ..... 44

6.1.1. Toki-erakundeak (KIUB) ..... 44

6.1.2. Kontsumitzaileen elkarteak ..... 47

6.2. Kontsumoko Aholku Batzordea ..... 48

6.3. Kontsumoko Institutu Nazionala (INC)  
eta gainerako autonomia-erkidegoak ..... 49

## Eranskinak (harremanetarako datuak) ..... 50

I. Eranskina: Kontsumobide ..... 50

II. Eranskina: Kontsumitzaileen informaziorako  
eta arretarako zentroak (KIAZ sarea) ..... 51

# 1. Sarrera

**K**ontsumobide-Kontsumoko Euskal Institutuaren egitura eta antolaketa 159/2011 Dekretuaren bidez onartu zen 2011ko uztailaren 12an, eta beraz, bi urte eta erdi pasa dira harrezkero. Nolanahi ere, epe horretan, institutuak beti izan du kontuan zer helbururekin sortu zen.

Eusko Jaurlaritzaren Osasun Sailari atxikitako erakunde autonomoa da, eta haren **helburua kontsumitzaileak eta erabiltzaileak defendatzearen eta babestearen arloan Eusko Jaurlaritzaren politikak zehaztea, planifikatzea, bultzatzea eta betearaztea da.**

Loturak 'Ezagutu Kontsumobide':

- ▶ [Helburuak eta funtzioak](#)
- ▶ [Kontsumobideren egitura](#)
- ▶ [Harremanetarako datuak](#)
- ▶ [Memoriak](#)

Hau du xede memoria honek: Kontsumoko Euskal Institutuak 2013. urtearen joanean kontsumitzaileak eta erabiltzaileak defendatzearen eta babestearen arloan egindako jardun eta jardura garrantzitsuenak eta nabarmenenak euskal herritarrei eta gure erakundekoak ez diren beste profesional batzuei jakinaraztea. Beste modu batera esanda, dokumentu honen helburua ez da Kontsumobidek aipatutako epe horretan gauzatutako jardura guztiak zehatz-mehatz bilduko dituen laburpena izatea, baizik eta aipagarritzat hartutako jardueren berri ematea.

Dokumentu honetako informazioa **bost ataletan** banatu dugu:

- ▶ Informazioa
- ▶ Prestakuntza
- ▶ Gatazken konponbidea
- ▶ Merkatuaren kontrola
- ▶ Beste erakunde eta agente batzuekin lankidetzak

'**Informazioa**' eta '**Prestakuntza**' ataletan Plangintza, Azterketa, Informazio eta Prestakuntzarako Unitatearen bidez gauzatutako jardura adieraziko dugu batez ere.

Informazioari eta prestakuntzari dagokionez, herritarrak beren eskubide eta betebeharrei buruz kontzientziatu eta hezteko ezinbesteko zereginak dira, modu kritiko, kontziente eta arduratsuan jardun dezaten produktu eta zerbitzuak kontsumitzeko garaian. Ikastaroak, konferentziak, hezkuntza-jarduerak, komunikabideak, gizarte-sareak, web-orriak, bertako zein kanpoko argitalpenak... Gaur egungo kontsumitzaileak zein etorkizunekoak

informatzeko eta hezteko eskura dituen bitarteko guztiak erabili ditu Kontsumobidek.

'**Gatazken konponbidea**' atalean, erreklamazioetarako, Bitartekaritzarako eta Arbitrajerako Unitatearen bidez gauzatutako jarduerak biltzen dira. Kontsumoarekin zerikusia duten arazoei irtenbidea emateko kontsumitzaileek erabilitako baliabide guztiak hartzen ditu bere baitan: kontsultak, erreklamazioak, zehapen-espedienteak, arbitraje-eskaerak...

'**Merkatuaren kontrola**' atala, berriz, Merkatuaren Ikuskaritza eta Kontrolerako Unitatearen bidez, batik bat, kontsumitzaileen eskura dauden produktuek eta zerbitzuek indarreko legerian eskatutako baldintza guztiak (etiketei, informazioari eta segurtasunari dagokienez) betetzen dituztela egiaztatzeko gauzatutako jarduera guztiei buruzkoa da.

'**Beste erakunde eta agente batzuekin lankidetzak**' atalean, Kontsumitzaileen Informaziorako Udal Bulegoei (KIUB) eta kontsumitzaileen elkarteei (KE) emandako laguntza ekonomikoei buruzko informazioa adierazi dugu, bai eta beste erakunde batzuekiko (Kontsumoko Kontsulta Batzordea, Kontsumoko Institutu Nazionala, beste autonomia-erkidego batzuk...) harremanei buruzko informazioa ere.

Eta azkenik, bi **eranskinetan** biltzen dira **Kontsumobidiren harremanetarako datuak** (I. eranskina), bai eta Euskadiko kontsumitzailearen informaziorako eta arretarako zentroen zerrenda ere (KIAZ sarea -Kontsumobidek koordinatutakoa-): **KIUB** eta **Kontsumitzaileen elkarteak** (II. eranskina).

## 2. Informazioa

2013. urtearen joanean, Kontsumobidek informazioaren alorrean egin zituen jarduerak ekimen hauen bidez gauzatu ziren:

- ▶ Argitalpenak
- ▶ Sentsibilizazioa
- ▶ [www.kontsumobide.net](http://www.kontsumobide.net)

### 2.1. Argitalpenak

Kontsumobideren lehentasuneko helburu bat da kontsumitzaileei eta erabiltzaileei zabaltzen zaien informazioa bultzatzea, eta, horretarako, **monografiak, liburuxkak, gidaliburuak eta kontsumo-gaiei buruzko askotariko materialak** erabiltzen dira.

Loturak:

- ▶ [Liburuxkak](#)
- ▶ [Gidak \(eskuliburuak\)](#)
- ▶ [Ikasmateriala](#)
- ▶ [Azterlanak](#)
- ▶ [Aldizkariak](#)
- ▶ [Memoriak](#)



## 2.1.1. Liburuxkak

2013. urtean liburuxka hauek argitaratu eta zabaldu dira:



Kontsumoko arbitrajea. Kontsumoko gatazkak konpontzeko biderik errazena.



Kontsumoari buruzko oinarrizko argibideak.



Kontsumobideren gomendioak kontsumitzaileentzat, enpresa bat ixten denerako.



Oliba-olioaren etiketatua



Itzulketak. Gomendioak.



Erosketa seguruak Sarean.



[Beltzarantze artifiziala.](#)



[Produktuen bermeak.](#)  
[Gomendioak.](#)



[Zerbitzu bat kontratatzea.](#)  
[Gomendioak.](#)



[Segurtasuna telefono mugikorrean.](#)




[Bidaia-agentzien itxiera.](#)

## 2.1.2. Ikasmateriala

2013an ikasmaterial hauek argitaratu dira:



[Multimedia: Frutak eta Barazkiak. Mundu iraunkor eta solidario baterako.](#)



[Multimedia: Frutak eta Barazkiak. Elikadura osasungarria lortzeko.](#)



[Multimedia: Elikagaien etiketak, Publizitatea, Establezimendutik kanpoko salmentak eta Laguntza Teknikoko Zerbitzuak.](#)

## 2.1.3. Aldizkariak

Kontsumobidek kontsumoarekin zerikusia duten gaiei buruzko aldizkari hauek egin eta argitaratzen jarraitu du:

- ▶ **Kontsumobide aldizkaria:** kontsumoari buruzko gaiak jorratzen dira monografikoki, ikuspegi hirukoitz bat oinarri hartuta: azalpen teorikoa, kasu praktiko eta adierazgarri baten planteamendua, eta kontsumitzailearen eskubideak eta betebeharrak.

2013. urtearen joanean hiru ale argitaratu dira:

- ▶ **17. zenbakia:** *Kontsumoari buruzko oinarrizko argibideak*
- ▶ **18. zenbakia:** *Internet telefono mugikorrean*
- ▶ **19. zenbakia:** *Kontsumoko arbitrajea*

- ▶ Lotura: [Kontsumobide aldizkaria](#)

- ▶ **“Kontsumorako prestakuntza ikastetxeetan” aldizkaria:** 2013an **8. zenbakia** argitaratu da, eta bertan 2012-2013 ikasturtean prestakuntza-ekintzetan parte hartu duten ikastetxeek bidalitako artikulua, argazkiak eta ekarpenak jasotzen dira. Programan parte hartu duten ikastetxeetan banatu da aldizkaria.

- ▶ Lotura: [‘Kontsumorako prestakuntza ikastetxeetan’ aldizkaria](#)

- ▶ **“Kontsumorako prestakuntza adinekoen zentroetan”:** 2013an **7. zenbakia** argitaratu da; bertan, prestakuntza-programan parte hartu duten EAEko adineko pertsonen zentroetan gauzatutako prestakuntza-programaren datuak jasotzen dira. Era berean, kontsumoarekin lotutako gaur egungo gaietan oinarritutako artikulua agertzen dira.

- ▶ Lotura: [‘Kontsumorako prestakuntza adinekoen zentroetan’](#)



## 2.1.4. Azterlanak

2013. urtean, kontsumoari buruzko hiru prestakuntza-zentroen bidez, haietako erabiltzaileen artean 3 inkesta egin dira:

- ▶ **Azterlana ‘Segurtasuna telefono mugikorrean’** (2013ko iraila-urria).
- ▶ **Azterlana ‘Merkataritza-establezimendutik kanpoko salmentak eta mirari-produktuak’** (2013ko urtarrila-ekaina) (adinekoei egindako galdeketa).
- ▶ **Azterlana ‘Kontsumitzaileen ezagutza kontsumoko oinarrizko nozioei buruz’** (2013ko otsaila-apirila).

Inkesta horietako emaitzak txosten banatan bildu ditugu.

- ▶ Lotura: [Azterlanak](#)

## 2.1.5. Kontsumobideren 2012ko memoria

2013. urtean argitaratu da [Kontsumobideren 2012ko memoria](#).



## 2.2. Sentsibilizazioa

### 2.2.1. Kontsumoko Arbitraje Sistema hedatzeko kanpaina

Kontsumoko Arbitraje Sistema kontsumitzaileen artean jakitera emateko, Kontsumobide – Kontsumoko Euskal Institutuak lelo hau zuen **hedapen-kanpaina** egin zuen: **“Kontsumoko arbitrajea. Egin zaitez arbitraje-sistemako kide!”**. 2013ko urrian eta azaroan gauzatutako kanpaina horretan, hainbat ekintza-mota gauzatu ziren: aurrez aurreko bisitak enpresetara, Internet bidez zabaldu (webgunea, bloga eta gizarte-sareak), liburuxkak banatu...

Enpresetara aurrez aurre egindako bisitei dagokienez, hau izan zen helburu nagusia: Kontsumoko Arbitraje Sistemako kide berriak lortzea. Horren haritik, aparteko garrantzia eman zitzaien eraikuntzaren eta telefoniaren sektoreekin zerikusia duten enpresei.

Bisita horiek, batik bat, Bilbon, Donostian eta Gasteizen egin dira, baina biztanle-kopuru handia duten EAEko beste udalerrri batzuetan ere izan ginen; hain zuzen ere, Bizkaiko 23 udalerritan, Gipuzkoako 19 udalerritan eta Arabako 7 udalerritan.

## 2.2.2. Kontsumobide hedatzeko kanpaina

Kontsumoko hainbat gairi buruzko informazioa jakitera emateko, 2013. urtean Kontsumobidek **dibulgaziozko kanpaina** bat egin zuen zenbait komunikabidetan:

- ▶ **Telebistan:** Adineko Pertsonen Nazioarteko Eguna dela eta, kontsumoari buruzko mezuak igorri ziren adineko pertsonentzat *Airean* saioan (ETB1) eta *Ni más ni menos* saioan (ETB2).
- ▶ **Irratian:** kontsumoarekin zerikusia duten gomendioak igorri ziren Cadena SER, EITB eta Onda Vasca dialetan.

## 2.2.3. Kontsumobideren agerpenak komunikabideetan

Guztira, 2013an, Kontsumobidek 2 prentsaurreko eta komunikabideetarako 19 ohar egin ditu.

2013. urtearen joanean Kontsumobide 347 aldiz agertu da prentsa idatzian, 4 aldiz telebistan eta 12 irratian.



## 2.3. [www.kontsumobide.net](http://www.kontsumobide.net)

Aipatutako [www.kontsumobide.net](http://www.kontsumobide.net) webgunea finkatzen ari da, kontsumoari buruzko informazioko eta Kontsumobideren jardueren eta dokumentuen berri emateko erreferente gisa.

Izan ere, webgunea bisitatu dutenen kopurua bikoiztu egin da, aurreko urteko kopuruarekiko (2013an **77.601 bisita** egin ziren, eta 2012an, berriz, 33.176).

Web-orriaren bidez, Kontsumobidek kontsumoaren alorreko kalitatezko informazio eguneratua eta erraz topa daitekeena eskaini nahi du, Institutuaren lan-esparruei dagokienez.

Webgunearen funtsezko helburua kontsumitzaileei beren eskubideak erabiltzen eta beren betebeharrak betetzen laguntzea da, eta, horretarako, modu arduratsuan kontsumitzeko informazio praktikoa eskaintzea. Hala ere, kontsumitzaileentzako informazioa eta dokumentazioa eskaintzeaz gain, informazio zehatza ere eskaintzen die beste talde batzuei: kontsumoaren alorrean lan egiten duten enpresei, hezitzaileei eta profesionaleri, hain zuzen.

Webguneari dagokionez, 2013. urtean, unean uneko gaiekin zerikusia duten interesguneei erantzuteaz gain, nabigatzea errazago egiteko zereginari aparteko garrantzia eman diogu, intituiboagoa egite aldera; horretarako, besteak beste, informazioaren zati handi bat berriro antolatu behar izan dugu, eta hori bereziki nabarmena izan da kontsumoari buruzko prestakuntzaren alorrean.

Bestalde, webgunea ezagutzera emateko lan handia egin dugu, batik bat Kontsumobideren lurralde-zerbitzuetan bertan eta KIUBetan ezagutzera emateko. Izan ere, helburua zen webgunea erreferente nagusia izatea kontsumitzaileak eta erabiltzeak informatzeko, eta horrez gain, Kontsumobideko profesionalak eta EAEko beste kontsumo-erakunde batzuetako profesionalak kontsumitzaileak babesteko eta defendatzeko egiten duten lanean kontsultarako eta laguntzarako tresna baliagarria izatea.

Eta azkenik, 2013. urtean, bloga sustatzeko eta gizarte-sareetan egoteko lan egiten jarraitu du Kontsumobidek: Facebook, Twitter eta Youtube.

## Kontsumobideren webgunea



euskadi.net

eu | es

[Enpresak](#) | [Prestatzaileak](#) | [Kontsumo-arloko profesionalak](#) | [Bilatu](#)  

EZAGUTU-GAITZAZU

GAUR EGUN

INFORMAZIOA

PRESTAKUNTZA

DOKUMENTAZIO ZENTROA

KONTSULTAK ETA ERREKLAMAZIOAK



## BULEGO BIRTUALA

- Egin zure kontsulta online
- Egin zure erreklamazioa online
- Laguntzak eta dirulaguntzak
- Kontratazio. Lehiaketak
- Erreklamazio-orriak: online erostea [enpresentzat]

## GAUR EGUN

Apirilak 22. Ama Lurraren Nazioarteko Eguna  
2014/04/22

Elektrizitate-konpainia batzuek merkataritza-jokabide erasokorrak eta gardentasun txikiak egin dituztela ohartarazi du Kontsumobidek, eta 2014ko urtaril-marboko argi-ordainaginko itzulketen berri eman du  
2014/04/16

Kontsumo arduratsuari buruzko 9. eskola-lehiaketa dela-eta (Consumópolis9), Euskadiri dagokion fase autonomikoa ebatzi da  
2014/04/04

Gehiago... »

## AGENDA

## INFORMAZIOA EMATEN DUGU


- Nor da kontsumitzaile?
- Ohiko kontsultak
- Kontsumoko gaiak
- Ezagutu araudia



Menpeko finantza-ekarpenak

## PRESTAKUNTZA EMATEN DUGU

- Aurkitu gertuen duzun prestakuntza-zentroa
- Hurrengo ikastaroak
- Ikasmateriala



Non gauden

## LAGUNTZEN DIZUGU

- Kontsulta bat egin
- Erreklamazio bat aurkezten
- Gatazkek konpontzeko bide errazena aurkitzen



Tarifa elektrikoa

## ALERTA DUTEN PRODUKTUAK



"FASHION STRINGS".  
Txirikordak egiteko kolore  
anitzeko plastikozko lokarriak.



B-WELL markako  
esterilizagailu elektrikoa,  
MEDELÄrena, 200.3377,  
200.3378 modelo.

## PRENTSA-KIOSKOA ETA BLOGA



## 3. Prestakuntza

**K**ontsumobide - Kontsumoko Euskal Institutuak herritarrei zein kontsumoaren arloan lan egiten duten profesionali zuzendutako doako prestakuntza- eta hezkuntza-programak antolatzen ditu.

Loturak:

- ▶ [Kontsumorako prestakuntza, lehenetasuna Kontsumobiderentzat](#)
- ▶ [Prestakuntza-eskaintza](#)
- ▶ [Norentzat da prestakuntza-eskaintza?](#)

Herritarrak kontsumoaren alorrean prestatu eta hezteko, Kontsumobidek hiru programa ditu, batez ere: **Kontsumobideren prestakuntza-zentroak, Kontsumoko prestakuntza ikastetxeetan eta Kontsumoko prestakuntza adineko zentroetan**. 2013. urtean, **guztira, 49.777 lagunek hartu dute parte** hiru programa horietan.

**Kontsumoaren alorreko profesionali zuzendutako prestakuntzari** dagokionez, urtean zehar prestakuntza-programa jarraitu bat egin da. 2013an, **148 lagunek hartu dute parte**.

### 3.1. Kontsumorako prestakuntza Kontsumobideko zentroetan

Kontsumobidek kontsumoari buruzko prestakuntza-zentro bat du lurralde historiko bakoitzean.

Loturak:

- ▶ [Kontsumobideren prestakuntza zentroak](#)
- ▶ [Prestakuntza-eskaintza: Prestakuntza Kontsumobideko zentroetan](#)

2013. urtearen joanean, **1.935 prestakuntza-jarduera** eman dira Kontsumobideren prestakuntza-zentroetan (tailerrak, hitzaldiak, ikastaroak...): 821 Bilbon, 829 Gasteizen eta 285 Donostian. Guztira, 206 ikastetxek hartu dute parte (109 irakaskuntza arautukoak eta 97 irakaskuntza ez-arautukoak).

Kontsumobideren prestakuntza-zentroetan antolatu diren prestakuntza-jardueretan, guztira, **23.973 lagunek hartu dute parte**.

Honako hauek izan dira tailerrak garatzeko eskaera gehien izan duten arloak: elikadura eta jasangarritasuna.

## Prestakuntza-jarduerak Kontsumobideko prestakuntza zentroetan (2013)

JARDUERA MOTA

JARDUERA KOPURUA

### Tailer espezifikoak

Publizitate arloa	179
Etiketen arloa	75
Erosketa eta zerbitzuen arloa	131
Iraunkortasun arloa	235
Kontsumitzaileen eskubideen arloa	40
Segurtasun arloa	121
Teknologia berrien arloa	119
Finantza-zerbitzuen arloa	66
Elikadura arloa	340

Tailer espezifikoak guztira **1.306**

Prestakuntza paketea 'ikas ezazu zure burua babesten'	<b>12</b>
Prestakuntza paketea 'bidaiatzea erraza da'	<b>0</b>
Minimaratoia	<b>164</b>
Herritartasunerako hezkuntza	<b>76</b>
Eskolako 21 agenda	<b>140</b>
Hezkuntza-premia bereziei egokituriko tailerrak	<b>185</b>
Begirunez kontsumitu	<b>8</b>
Familiantzako tailerrak	<b>4</b>
Prestakuntza-jarduerak udalerrietan	<b>24</b>
Hezitzaileentzako ikastaroak	<b>16</b>

JARDUERAK GUZTIRA **1.935**

## 3.2. Kontsumorako prestakuntza ikastetxeetan

**Lehen Hezkuntzako** ikastetxeei eta **Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako lehen zikloari** zuzenduta dago programa hau.

Ikastetxea osatzen duten hiru kolektiboek zuzendutako jarduerak dira: **ikasleak**, **gurasoak** eta **irakasleak**.



► Lotura: [Prestakuntza-eskaintza: Kontsumorako prestakuntza ikastetxeetan](#)

Ikastetxez ikastetxeko programa horren baitan, kontsumoari buruzko **2.592 tailer** egin dira: **2.559 tailer ikasleentzat** (2.302 Lehen Hezkuntzako ikastetxeetan eta 257 DBHko lehen zikloan) eta **33 gurasoentzat**.

Tailer horiek EAEko 126 ikastetxetan eman dira, eta, guztira, **21.669 ikaslek** zein haien irakaslek eta **921 gurasok hartu dute parte**.

### Ikastetxeetan ikasleei emandako tailer kopurua (2013)

gai arloen eta ikasketa mailen arabera

GAI ARLOAK	LEHEN HEZKUNTZA	2. HEZKUNTZA (1. ZIKLOA)	GUZTIRA
Eskubideak eta betebeharrak	31	4	35
Elikadura	875	66	941
Kontsumo jasangarria	701	78	779
Aisia, jokoak eta jostailuak	182	14	196
Publizitatea	151	25	176
Segurtasuna	74	2	76
Erosketarako irizpideak eta etiketak	116	38	154
Teknologia berriak	172	30	202
<b>GUZTIRA</b>	<b>2.302</b>	<b>257</b>	<b>2.559</b>

Gurasoentzako 6 jarduera eskaini dira:

- ▶ Hitzaldi bat haien ikastetxean programaren esperientziari buruz.
- ▶ 'Nola elikatu haurtzaroan eta nerabezaroan' tailerra.
- ▶ 'Ikas dezagun publizitatea aztertzen' tailerra.
- ▶ 'Bideojokoak, badakigu zertan jolasten dugun?' tailerra.
- ▶ 'Adingabeak eta Internet zerbitzua' tailerra.
- ▶ 'Adingabeak eta sakeleko telefonoak' tailerra.

Irakasleentzako kontsumoaren alorreko orientazio pedagogikorako zerbitzua eta ikasmaterial osagarri bidezko laguntza eskaini da, gelan lan egiteko (web quest eta dossier pedagogikoak).

### Consumópolis:

Kontsumo arduratsuari buruzko eskola-lehiaketa bat da, eta Lehen Hezkuntzako Hirugarren Zikloko eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasleei zuzenduta dago. Kontsumoko Institutu Nazionalak antolatzen du, Kontsumobiderekin eta gainerako autonomia-erkidegoekin batera.

- ▶ Lotura: [Consumópolis. Lehiaketa kontsumo arduratsuari buruz.](#)

Lehiaketaren 8. edizioan (**Consumópolis 8. "Entrenatu gogoz, arduraz kontsumitzeko"**, 2012-2013 ikasturtea), EAERI dagokionez, **67 eskola-talde** hartu dute parte.

**Madre de Dios ikastetxea (Bilbo) izan da** eskola-lehiaketari dagokion autonomiako eta estatuko irabazlea, DBHko lehen zikloan, hain zuzen (**Lehen eta Bigarren ikasturteak**).

2013. urteko azken hiruhilekoan, lehiaketaren 9. edizioaren lehiaketaren lehen zatia gauzatu da (**Consumópolis 9. "Pantailen artean kontsumitzea". 2013-2014 ikasturtea**).

### 3.3. Kontsumorako prestakuntza adinekoen zentroetan

Aurreko urteetan bezala, 2013an ere, bereziki hirugarren adinekoen zentroei zuzendutako prestakuntza-jarduerak egin dira.

- ▶ Lotura: [Kontsumorako prestakuntza adinekoen zentroetan](#)

Prestakuntza-jarduerak adinekoen zentroetan (2013)	
GAI ARLOAK	KONFERENTZIA ETA IKASGELA KOPURUA
Publizitatea	1
Etiketak	1
Erosketak eta zerbitzuak	4
Jasangarritasuna	10
Eskubideak eta betebeharrak	10
Segurtasuna	16
Teknologia berriak	3
Finantza-zerbitzuak	5
Elikadura	9
<b>GUZTIRA</b>	<b>59</b>

EAEko hirugarren adinekoen **30 zentrotan** eta elkartetan egin da programa, eta, guztira, **3.214 lagunek hartu dute parte**.

Gehien eskatu duten gaia Segurtasunari buruzkoa izan da.

2013. urtean, adineko zentroentzako prestakuntza-programan parte hartu dutenek ekoizpen-zentro eta erakunde hauetan izan dira bisitan: Cafés la Fortaleza, Getxoko Ingurumen Aretoa, Mondragon Korporazioa, Nestlé, Orbea Bizikletak eta El Correo.



## 3.4. Ikastaroak eta jardunaldiak

### 3.4.1. Profesionalentzako etengabeko prestakuntza

2013. urtean, kontsumoaren alorreko profesionalentzako bi ikastaro antolatu eta eman dira:

#### Ikastaroa: ‘Bitartekotza gatazka-konponbiderako’ (2013ko maiatzean eta azaroan)

**20 orduko iraupena** duen ikastaro mistoa da, ordu presentzialak eta on-line orduak uztartzen baitira. Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearen laguntzarekin antolatu zen, eta **kontsumoko 16 teknikariri zein koordinatzaileari eman zitzaien** (maiatzaren 21ean eta 28an), **bai eta 16 laguntzaileari eta administrari ere** (azaroaren 5ean eta 6an) Gasteizen.

#### Ikastaroa: ‘Arauen gaurkotzea. Kontsumitzaileak babestearen ezaugarriak araututako sektoreetan: energia eta telekomunikazioak’ (2013ko urria)

Kontsumoko Institutu Nazionalaren laguntzarekin antolatutako **20 orduko ikastaroa**; Kontsumobidek Bilbon duen prestakuntza-zentroan egin zen 2013ko urrian, eta **kontsumo-alorreko 70 profesionali eman zitzaien**.

### 3.4.2. EHUko Udako Ikastaroak

Kontsumobidek Euskal Herriko Unibertsitatearen Uda Ikastaroetan lagundu du, “**Banku-produktuak eta kontsumitzailearen babesa**” **eskolaren** bidez (Donostia. 2013ko ekainaren 25a eta 26a). Ikastaroak 20 orduko iraupena zuen, eta 37 lagunek hartu zuten parte.

## 4. Gatazkak konpontzea

**H**erriarrei zerbitzu eraginkorra eskaintzea da Kontsumobide – Kontsumoko Euskal Institutuaren lehentasuna, baita haiei beharrezko baliabide guztiak eskaintzea ere, herritarrek kontsumoaren alorrean dituzten eskubideak eta hartu behar dituzten arreta-neurriak zein diren jakin dezaten.

### 4.1. Kontsumoko kontsultak Euskadin

2013. urtearen joanean, **kontsumoari buruzko 40.440 kontsulta erantzun ditu guztira, Euskadin**. Haietatik, **10.399 kontsulta zuzenean Kontsumobidera bideratu dira**, eta bide hauek erabili dira kontsulta horietarako: aurrez aurre, telefonoa (bai jendearen arretarako lurralde-zerbitzuetako telefonoen bidez, bai kontsumitzaileentzako doako telefonoaren bidez) eta on-line.

Era berean, beste hainbat kontsumo-erakundek ere jaso dituzte kontsumitzaileen kontsultak; esaterako, Kontsumitzaileen Informaziorako Udal-bulegoek (KIUB) eta kontsumitzaileen elkarteek. Hain zuzen ere, **2013an, KIUBek 25.495 kontsultari erantzun diete**, eta **kontsumitzaileen elkarteek, 4.546 kontsultari**.

- ▶ Lotura: [Kontsumo-arloko kontsultak, nola egin...](#)



Taula honetan, erakundeek jaso dituzten kontsultei buruzko datuak ikus daitezke, sektorearen eta erakundearen arabera berezita:

## Kontsumoko kontsultak Euskadin (2013)

sektore eta erakundearen arabera

PRODUKTUA / ZERBITZUA	KONTSUMOBIDE	KIUB	KE	GUZTIRA	%
Elikadura	52	48	5	105	0,26%
Etxeko-tresna elektrikoak	561	506	69	1.136	2,81%
Jostailuak	4	9	1	14	0,03%
Material elektrikoak	23	17	0	40	0,10%
Altzariak	203	198	26	427	1,06%
Kosmetikoak, drogeria, lurringaiak...	18	11	4	33	0,08%
Ehunak, oinetakoak eta osagarriak	270	261	38	569	1,41%
Telefonia eta komunikazioa (produktuak)	207	140	1	348	0,86%
Ibilgailuak	228	255	16	499	1,23%
Askotariko produktuak	428	242	19	689	1,70%
Konponketa-zerbitzuak	163	333	59	555	1,37%
Hornidura-zerbitzuak (energia, ura...)	962	2921	355	4.238	10,48%
Etxebizitza (higiezinaren sustapena)	334	1391	810	2.535	6,27%
Etxebizitza (konponketak, gremioak)	149	396	79	624	1,54%
Ibilgailuen konponketa	208	828	126	1.162	2,87%
Bidaiak	188	695	112	995	2,46%
Garraioak	282	653	153	1.088	2,69%
<b>Telekomunikazioak</b>	<b>2.930</b>	<b>7.777</b>	<b>707</b>	<b>11.414</b>	<b>28,22%</b>
Banku-zerbitzuak	1163	2.190	833	4.186	10,35%
Osasun eta laguntza zerbitzuak	91	199	40	330	0,82%
Tindategiak eta garbitegiak	46	94	23	163	0,40%
Aseguruak	464	1.615	252	2.331	5,76%
Gasolina eta zerbitzuguneak	6	7	4	17	0,04%
Askotariko zerbitzuak	1419	4.709	814	6.942	17,17%
<b>GUZTIRA</b>	<b>10.399</b>	<b>25.495</b>	<b>4.546</b>	<b>40.440</b>	<b>100,00%</b>

## 4.2. Kontsumoko erreklamazioak Euskadin


2013an, **Euskadin, 23.941 erreklamazio izapidetu ziren** kontsumo-bulegoen bidez: **10.952 Kontsumobideren bidez, 12.521 Kontsumitzaileen Informaziorako Udal Bulegoen (KIUB) bidez** eta **468 kontsumitzaile-elkarteen bidez**.

Kontsumo-erakundeek izapidetutako erreklamazioak aztertu ondoren, agerian geratu da sektore berberak direla erreklamatuena; horien guztien artean, **telekomunikazioen sektorea da erreklamazio gehien jaso dituen**, erreklamazioen % 38,56, hain zuzen ere. Banku-zerbitzuak bigarren tokian ageri dira (%10,25), eta atzetik, energia-zerbitzuak (%8,75) eta garraioarekin zerikusia dutenak (%4,21). Hain zuzen, lau sektore horiek erreklamazio guztien erdia baino gehiago bildu dituzte (%61,77).

- ▶ Lotura: [Kontsumoko erreklamazioak nola egin](#)
- ▶ Lotura: [Kontsumo-arloko gatazkak konpontzea. Izapideak](#)

### Kontsumoko erreklamazioak Euskadin (2013)

erakundeen arabera



## Kontsumoko erreklamazioak Euskadin (2013)

sektore eta erakundeen arabera

PRODUKTUA / ZERBITZUA	KONTSUMOBIDE		KIUB		KE	
Elikadura	69	0,63%	25	0,20%	15	3,21%
Etxeko-tresna elektrikoak	415	3,79%	518	4,14%	0	0%
Jostailuak	41	0,37%	10	0,08%	0	0%
Material elektrikoak	44	0,40%	8	0,06%	9	1,92%
Altzariak	189	1,73%	122	0,97%	0	0%
Kosmetikoak, drogeria, lurringaiak...	15	0,14%	12	0,10%	2	0,43%
Ehunak, oinetakoak eta osagarriak	237	2,16%	139	1,11%	2	0,43%
Telefonia eta komunikazioa (produktuak)	379	3,46%	106	0,85%	2	0,43%
Ibilgailuak	107	0,98%	69	0,55%	5	1,07%
Askotariko produktuak	308	2,81%	145	1,16%	3	0,64%
Konponketa-zerbitzuak	99	0,90%	149	1,19%	38	8,12%
Hornidura-zerbitzuak (energia, ura...)	713	6,51%	1344	10,73%	8	1,71%
Etxebizitza (higiezinaren sustapena)	109	1,00%	131	1,05%	8	1,71%
Etxebizitza (konponketak, gremioak)	63	0,58%	89	0,71%	9	1,92%
Ibilgailuen konponketa	333	3,04%	291	2,32%	17	3,63%
Bidaiak	162	1,48%	385	3,07%	68	14,53%
Garraioak	495	4,52%	445	3,55%	0	0%
<b>Telekomunikazioak</b>	<b>3.444</b>	<b>31,45%</b>	<b>5629</b>	<b>44,96%</b>	<b>159</b>	<b>33,97%</b>
Banku-zerbitzuak	1628	14,86%	765	6,11%	62	13,25%
Osasun eta laguntza zerbitzuak	138	1,26%	47	0,38%	5	1,07%
Tindategiak eta garbitegiak	101	0,92%	54	0,43%	3	0,64%
Aseguruak	87	0,79%	423	3,38%	19	4,06%
Gasolina eta zerbitzuguneak	38	0,35%	9	0,07%	0	0%
Askotariko zerbitzuak	1688	15,41%	1605	12,82%	34	7,26%
Beste batzuk	50	0,46%	1	0,01%	0	0%
<b>GUZTIRA</b>	<b>10.952</b>	<b>100%</b>	<b>12.521</b>	<b>100%</b>	<b>468</b>	<b>100%</b>

## Kontsumoko erreklamazioak Euskadin (2013)

sektore eta lurralde historikoen arabera


PRODUKTUA / ZERBITZUA	ARABA		BIZKAIA		GIPUZKOA		ONLINE		GUZTIRA	
Elikadura	24	0,51%	52	0,40%	16	0,26%	2	1,29%	94	0,39%
Etxeko-tresna elektrikoak	235	5,01%	514	3,95%	197	3,25%	2	1,29%	948	3,96%
Jostailuak	22	0,47%	25	0,19%	4	0,07%	0	0%	51	0,21%
Material elektrikoak	6	0,13%	35	0,27%	11	0,18%	0	0%	52	0,22%
Altzariak	126	2,68%	122	0,94%	72	1,19%	0	0%	320	1,34%
Kosmetikoak, drogeria, lurringaiak...	8	0,17%	9	0,07%	10	0,16%	0	0%	27	0,11%
Ehunak, oinetakoak eta osagarriak	93	1,98%	207	1,59%	76	1,25%	2	1,29%	378	1,58%
Telefonia eta komunikazioa (produktuak)	82	1,75%	254	1,95%	148	2,44%	3	1,94%	487	2,03%
Ibilgailuak	47	1%	91	0,70%	40	0,66%	0	0%	178	0,74%
Askotariko produktuak	121	2,58%	204	1,57%	131	2,16%	2	1,29%	458	1,91%
Konponketa-zerbitzuak	53	1,13%	152	1,17%	46	0,76%	0	0%	251	1,05%
Hornidura-zerbitzuak (energia, ura...)	286	6,09%	1.122	8,61%	675	11,13%	12	7%	2.095	8,75%
Etxebizitza (higiezinaren sustapena)	58	1,24%	124	0,95%	63	1,04%	3	1,94%	248	1,04%
Etxebizitza (konponketak, gremioak)	26	0,55%	87	0,67%	46	0,76%	1	0,65%	160	0,67%
Ibilgailuen konponketa	132	2,81%	371	2,85%	126	2,08%	4	2,58%	633	2,64%
Bidaiak	155	3,30%	332	2,55%	75	1,24%	2	1,29%	564	2,36%
Garraioak	131	2,79%	674	5,17%	179	2,95%	24	15,48%	1.008	4,21%
<b>Telekomunikazioak</b>	<b>1.694</b>	<b>36,08%</b>	<b>4.817</b>	<b>36,98%</b>	<b>2.677</b>	<b>44,13%</b>	<b>44</b>	<b>28,39%</b>	<b>9.232</b>	<b>38,56%</b>
Banku-zerbitzuak	753	16,04%	1.084	8,32%	603	9,94%	15	9,68%	2.455	10,25%
Osasun eta laguntza zerbitzuak	27	0,58%	96	0,74%	67	1,10%	0	0%	190	0,79%
Tindategiak eta garbitegiak	28	0,60%	84	0,64%	44	0,73%	2	1,29%	158	0,66%
Aseguruak	128	2,73%	287	2,20%	112	1,85%	2	1,29%	529	2,21%
Gasolina eta zerbitzuguneak	10	0,21%	28	0,21%	9	0,15%	0	0%	47	0,20%
Askotariko zerbitzuak	435	9,27%	2.237	17,17%	630	10,39%	25	16,13%	3.327	13,9%
Beste batzuk	15	0,32%	17	0,13%	9	0,15%	10	6,45%	51	0,21%
<b>GUZTIRA</b>	<b>4.695</b>	<b>100%</b>	<b>13.025</b>	<b>100%</b>	<b>6.066</b>	<b>100%</b>	<b>155</b>	<b>100%</b>	<b>23.941</b>	<b>100%</b>

## 4.2.1. Kontsumobide

2013. urtearen joanean, Kontsumobidek **10.952 erreklamazio jaso zituen** aurrez aurre (hiru lurralde-zerbitzuen bidez: Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa) zein telematikoki. Honako hau da bulegoetan egindako erreklamazioen lurraldekako banaketa: 2.414 Arabako Kontsumobideko bulegoanizapidetu ziren, 5.782 Bizkaikoan eta 2.601 Gipuzkoakoan. On-line ere 155 erreklamazio jaso ziren.

2013an Kontsumobiden jasotako erreklamazio guztiak kontuan hartuta, hauek dira nabarmentzeko moduko datuak, besteak beste:

- ▶ **Bereziki bultzatu da Kontsumobideren bitartekotza-lana** 2013. urtean: **5.903 kasutan bideratu zen modu horretan, eta haietatik, 2.706 kasutan lortu zen adostasun-motaren bat** (erabatekoa edo partziala).
- ▶ 840 erreklamazio beste erakunde batzuetara bideratu ziren, haiek ebatz zitzaten, Kontsumobideren eskumenekoak ez ziren gaiei buruzkoak baitziren.
- ▶ **262 erreklamazio Arbitraje Batzordera bideratu ziren.**
- ▶ Kontsumobidek **343 erreklamazio zehapen-espeditzeko proposamenarekin itxi zituen**, salatutako enpresentzat. Bestalde, 550 kasutan espedientea artxibatu egin zen, arau-hausterik gertatu ez zela egiaztatu ondoren Kontsumobidek.



# kontsumOBIDE

KONTSUMOKO  
EUSKAL INSTITUTUA  
INSTITUTO VASCO  
DE CONSUMO

## Kontsumobiden aurkeztutako erreklamazioak (2013)

sektore eta lurralde historikoen arabera

PRODUKTUA / ZERBITZUA	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	ONLINE	GUZTIRA	%
Elikadura	23	31	13	2	69	0,63%
Etxeko-tresna elektrikoak	88	206	119	2	415	3,79%
Jostailuak	17	20	4	0	41	0,37%
Material elektrikoak	3	30	11	0	44	0,40%
Altzariak	78	61	50	0	189	1,73%
Kosmetikoak, drogeria, lurringaiak...	2	6	7	0	15	0,14%
Ehunak, oinetakoak eta osagarriak	50	125	60	2	237	2,16%
Telefonia eta komunikazioa (produktuak)	63	188	125	3	379	3,46%
Ibilgailuak	29	41	37	0	107	0,98%
Askotariko produktuak	74	127	105	2	308	2,81%
Konponketa-zerbitzuak	20	71	8	0	99	0,90%
Hornidura-zerbitzuak (energia, ura...)	152	337	212	12	713	6,51%
Etxebizitza (higiezinaren sustapena)	19	57	30	3	109	1%
Etxebizitza (konponketak, gremioak)	8	39	15	1	63	0,58%
Ibilgailuen konponketa	57	199	73	4	333	3,04%
Bidaiak	21	125	14	2	162	1,48%
Garraioak	41	354	76	24	495	4,52%
<b>Telekomunikazioak</b>						
Alderdi orokorrak	11	190	24	2	227	2,07%
Telefonia finkoa	162	100	76	17	355	3,24%
Telefonia mugikorra	634	1160	633	20	2.447	22,34%
Internet	247	67	96	5	415	3,79%
Banku-zerbitzuak	404	797	412	15	1.628	14,86%
Osasun eta laguntza zerbitzuak	13	74	51	0	138	1,26%
Tindategiak eta garbitegiak	22	52	25	2	101	0,92%
Aseguruak	12	54	19	2	87	0,79%
Gasolina eta zerbitzuguneak	7	24	7	0	38	0,35%
Askotariko zerbitzuak	142	1231	290	25	1688	15,41%
Beste batzuk	15	16	9	10	50	0,46%
<b>GUZTIRA</b>	<b>2.414</b>	<b>5.782</b>	<b>2.601</b>	<b>155</b>	<b>10.952</b>	<b>100%</b>



## Bitartekaritzarekin ebatzitako erreklamazioak (2013)

erabaki mota eta lurralde historikoen arabera

ERABAKIA	ARABA		BIZKAIA		GIPUZKOA		ONLINE		GUZTIRA	
Artxibatu adostasunagatik	726	53,07%	1.129	39,64%	587	36,15%	25	39,68%	2.467	41,79%
Artxibatu adostasun partzialagatik	77	5,63%	87	3,05%	65	4,00%	10	15,87%	239	4,05%
Artxibatu ohartarazpenarekin	10	0,73%	36	1,26%	4	0,25%	0	0%	50	0,85%
Artxibatu arbitraje proposamenduarekin	29	2,12%	188	6,60%	43	2,65%	2	3,17%	262	4,44%
Artxibatu zehapen-espediente proposamenarekin	98	7,16%	72	2,53%	170	10,47%	3	4,76%	343	5,81%
Artxibatu desadostasunagatik	381	27,85%	1.023	35,92%	553	34,05%	22	34,92%	1.979	33,53%
Artxibatu desadostasunagatik eta bidaltzea	0	0%	3	0,11%	10	0,62%	0	0%	13	0,22%
Artxibatu arau-hausterik gabe	47	3,44%	310	10,88%	192	11,82%	1	1,59%	550	9,32%
<b>GUZTIRA</b>	<b>1.368</b>	<b>100%</b>	<b>2.848</b>	<b>100%</b>	<b>1.624</b>	<b>100%</b>	<b>63</b>	<b>100%</b>	<b>5.903</b>	<b>100%</b>

## Bitartekaritzarik gabe ebatzitako erreklamazioak (2013)

erabaki mota eta lurralde historikoen arabera

ERABAKIA	ARABA		BIZKAIA		GIPUZKOA		ONLINE		GUZTIRA	
Artxibatu. Salaketa	1	0,30%	2	0,14%	6	1,49%	0	0%	9	0,41%
Artxibatu. Ez da izapedetzea onartu	46	13,77%	364	25,62%	75	18,56%	14	26,92%	499	22,57%
Artxibatu. Ez da aurkitu	10	2,99%	52	3,66%	21	5,20%	1	1,92%	84	3,80%
Artxibatu uko egiteagatik	29	8,68%	33	2,32%	26	6,44%	4	7,69%	92	4,16%
Artxibatu dokumentazioa ez aurkezteagatik	17	5,09%	107	7,53%	59	14,60%	3	5,77%	186	8,41%
Artxibatu. Kexa	105	31,44%	327	23,01%	65	16,09%	2	3,85%	499	22,57%
Alerta-sarean sartzea	0	0%	2	0,14%	0	0%	0	0%	2	0,09%
